

Kontuz, ileak



ANE LABAKA MAYOZ
BERTSOLARIA

Ile bat transgresorea da berez, izatez; errebeldea, intsumisoa, bihurria, apurtzailea, ausarta. Tokiz kanpo egon ohi da gehienetan. Deserosoa da sarri. Arrain zoparen platerean, luxuzko hoteletako perfumedun izara zurietan, bainerako ura urmaeltzen duen buxatutako hoditerian, bibote izatera iristen ez den nerabearen ezpain gaineko esparru minatuan, maitale kartsuaren ahoan, edozein emakumeren gorputzean... Traba egiten du ia beti.

Besapeetakoak politizatzen asmatu du zenbaitek dagoeneko. Buruhauste gehixeago sortu ohi dituzte, ordea, iztarteetatik iztarretara hedatzen direnek, zangosagarretakoek, orkatiletakoek, bi bekainen tarteko gunean sortzen direnek, belaunburuetakoek, belarri azpitik masailezurretarantz doazenek... Baina ari gara. Hitz egin dugu publikoki gaiari buruz, mada-rikatu dugu kanon estetiko zapaltzailea depiladoraren torturarako kamila deserosoan, oihu egin nahi eta ezinean, hanka zabalik eta izerdi patsetan geunden bitartean. Saldu dizkigute mila teknika ezberdin –bide batez, denak mingarri–, mila produktu eta negozio berritzaile, eta

Bizitzan lehen aldiz aditu
ahal izan dut norbait
titiburuen inguruan
agertu ohi diren
ile bakan kiribilduei buruz
umorez hizketan
–eta, kasu honetan,
kantuan–

saldu nahi izan digute hauen artean aukeratzeko nolabaiteko askatasuna.

Telebistako iragarkiek ahots alaiz gomendatu dizkigute ileek azken orduko plan eguzkitsu bat inola ere izorratu ez diezaguten erosi beharrekoak. Pixkanaka ulertarazi digute zenbateraino diren hil ala biziko, zenbateraino baldintzatu gaitzaketen. Gorputzu dugu opresioa eta borrokatu dugu norberak kentzeko

edo ez-kentzeko izan dezakeen nolabaiteko aukera ere.

Eta, hala eta guztiz ere, bi asteburutan jarraian harritu naute gune feministetan egindako saioetan bertsokide izan ditudanetako bi emakumek kantatutakoek. Oholtzan nahiz handik kanpo, bizitzan lehen aldiz aditu ahal izan dut norbait titiburuen inguruan agertu ohi diren ile bakan kiribilduei buruz umorez hizketan –eta, kasu honetan, kantuan–.

Baliteke ordura arte norbaitek bakar-karra zela uste izatea. Bere gorputzak pintzekin lehenbailehen erauzi beharreko arrarotasun bat gehiago zuela ondorioztatuko zuen agian. Ahalik eta azkarren ezkutatu beharreko bitxikeria bat gehiago.

Eta kalkulatu nahi izan nuen zenbat aldiz errepikatu izan dugun esaldi berbera; izendatzen ez dena ez dela existitzen. Eta berretsi nuen zenbat lan daukagun egiteke, zenbat borroka eta sormen lur ibiltzeke. Zenbat errealtate zati ditugun oraindik aipatzeke, ahoskatzeke, kantatzeke, kontatzeke.

Existitu arazteke. ●



Bizi nahi duen herria!

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA



Jende gehiagori
ahotsa emateko,
lagun gehiagorengana
heltzeko eta
eragiten jarraitzeko
EGIN ARGIAKOA!